

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Urtarrilaren 4ko 19/2022 Ebazpena, Kabinete eta Komunikazio zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena, errepide bidezko garraioen arloan eguneraketa egiteko eta foru eskumenak parekatzeko

Arabako Foru Aldundiak, 2021eko abenduaren 29an, hitzarmen bat izenpetu du Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin errepide bidezko garraioen arloan eguneraketa egiteko eta foru aldundiak parekatzeko.

Bat etorri Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 79. artikuluan adierazitakoarekin, eta aipatutako hitzarmenaren hamalagarren estipulazioan jasotakoarekin (ebazpen honen eranskin gisa dago jasota), ALHAOn argitaratu behar da hitzarmena.

Horregatik, bat etorri Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 102. artikuluan xedatutakoarekin, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa eta bakarra. ALHAOn argitara dadila Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena, errepideko garraioen arloan eguneraketa egiteko eta foru eskumenak parekatzeko, ebazpen honen eranskin moduan jasota dagoena.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 4a

Kabinetearen eta Komunikazioaren zuzendaria
ELENA FERREIRA SEBASTIAN

ERANSKINA**GARRAIO, MUGIKORTASUN ETA HIRI AGENDA MINISTERIOAREN, EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ETA ARABAKO
FORU ALDUNDIAREN ARTEAN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOEN
INGURUKO FORU-ARAUDIA EGUNERATZEKO HITZARMENA****BILDU DIRA**

Isabel Pardo de la Vera Posada, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren estatu- idazkaria, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioa ordezkatzuz.

Ignacio María Arriola López, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila, ordezkatzuz.

Ramiro González Vicente, diputatu nagusia, Arabako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Alderdiek hitzarmen hau sinatzeko beharrezkoa den gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri eta, horren arabera, honako hau

ADIERAZTEN DUTE

Historikoki, Euskal Autonomia Erkidegoko foru-lurraldeek errepideko garraio mekanikoaren arloko hainbat eskubide eta eskumen erabili izan dituzte araubide pribatiboan.

Arabako Lurralde Historikoari dagokionez, araubide hori, gainera, etenik gabe mantendu da denboran zehar, eta Arabako Foru Aldundiak eta orduko Herri Lan Ministerioak 1950eko martxoaren 9an sinatutako hitzarmenetan islatu da zehazki.

Abuztuaren 25eko 2488/1978 eta ekainaren 18ko 1446/1981 Errege Dekretuen bidez, Estatutik Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatu ziren lurreko garraioen arloko zenbait zerbitzu, eta, ondoren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei eskualdatu zitzaizkien, 1985eko martxoaren 5eko 36/1985, 56/1985 eta 46/1985 Dekretuen bidez.

Geroago, lurreko garraioen erregulazioa asko berrikusi zen, eta Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legea eta Estatuak errepideko eta kable bidezko garraioen arloan dituen ahalmenak Autonomia-Erkidegoei eskuordetzeko uztailaren 30eko 5/1987 Lege Organikoa eman ziren.

Uztailaren 30eko 5/1987 Lege Organikoaren Xedapen Gehigarriak xedatzen duenez, Arabako Foru Aldundiarekin alde zuzenetik adostuta, foru-aldundiak, gaur egun indarrean dauden Hitzarmenei jarraiki, bere lurralde-esparrutik kanpo dauden garraioei dagokienez gauzatzen dituen ahalmen eta eskumenak Lege Organiko horretan ezarritako funtsezko antolamenduaren eta eskumenen esparrura egokituko dira. Hala ere, Arabako Foru Aldundian eginkizunak eskuordetzeko aurreikusitako araubidea soilik aplikatuko zaio Arabako Foru Aldundiari, baldin eta foru-aldundi horrek dituen eskumenak zabaltzea badakar. Gainera, Arabako Foru Aldundiari dagokionez Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru-Aldundientzat ezarritakoa parekatze aldera, bidezko erabakiak egingo dira foru-aldundiekin, uztailaren 30eko 5/1987 Lege Organikoan ezarritakoaren esparruan.

Beraz, Xedapen Gehigarri horrek foru-lurraldeen eskubide historikoak eguneratzea aurreikusten du, Espainiako Konstituzioak berariaz babesten eta errespetatzen baititu Lehenengo Xedapen Gehigarrian.

Testuinguru horretan, eta eguneraketa hori egiteko eta araubide historikoa errepide bidezko garraioaren erregulazio berriari egokitzeko, beharrezkotzat jo da 1950eko martxoaren 9ko hitzarmenak berrikustea eta araubide berria gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten lurralde historikoetan aplikatzea eta autonomia erkidegoko erakunde komunek horretan parte hartzea, eta hori guztia Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.32 eta 12.9 artikuluek eta xedapen gehigarriak xedatutakoaren arabera eta Euskal Autonomia

Erkidegoko erakunde komunak eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 10. artikuluz baliatuz erakunde horiei dagozkien araugintza eta koordinazio ahalmenetan oinarrituz egingo da.

Horrela, alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Arabako Foru Aldundiak, eta, bestetik, Estatuko Administrazio Orokorrak, ados jarrita, honako hau

ERABAKI DUTE

Lehenengoa. Xedea

Hitzarmen honen xedea da indarrean dagoen antolamendu substantiboaren eta eskumenen esparrura egokitzea Arabako Lurralde Historikoak bere lurralde-eremua gaintzen duten garraioei dagokienez dituen ahalmenak eta eskumenak, Espainiako Konstituzioaren Lehenengo Xedapen Gehigarrian, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren Xedapen Gehigarrian eta Estatuak errepideko eta kable bidezko garraioen arloan dituen ahalmenak autonomia-erkidegoetan eskuordetzeari buruzko uztailaren 30eko 5/1987 Lege Organikoaren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren esparruan parekatuz.

Bigarrena. Bidaiarien garraio publiko erregularra

1. Garraio publiko erregularrak.

Arabako Foru Aldundiak, bere eskumenen banaketaren arabera, bere lurralde-mugak gaintzen ez dituzten ibilbideak dituzten bidaiarien barneko linea eta zerbitzuen gainean dituen eskumenak alde batera utzi gabe, honako ahalmen hauek izango ditu:

a) Lurralde Historikoaren eremuan egindako zerbitzu partzial guztiak sortu, ezarri, aldatu eta kentzeko espedienteak izapidetu eta ebatzea, baldin eta bidaiarien ibilbidea Autonomia-Erkidego batetik baino gehiagotik igarotzen bada barneko linea erregularretan.

b) Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan jatorria eta helmuga duten trafikoak dituzten zerbitzuei buruzko sortze-, ezartze-, aldatze-, kentze- eta erreskate-espedienteen xede diren Estatuaren eskumeneko zerbitzu edo lerroetan, Administrazio eskudunak Arabako Foru Aldundiaren nahitazko txostena eskatu beharko du, eta txosten hori hilabeteko epean eman beharko da. Txostena epe horretan ematen ez bada, aldekoa dela ulertuko da.

2. Arabako Lurralde Historikotik igarotzen diren eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo doazen zerbitzu erregularrak.

1. Bidaiarien garraio publiko erregularreko zerbitzuen ibilbidea ibilbidearen zatirik handien Arabako Lurralde Historikotik igarotzen bada, eta zati batek Euskal Autonomia Erkidegoa gaintzen badu, Arabako Foru Aldundiak izango du eskumena zerbitzua emateko kontratuari dagokionez.

2. Arabako Foru Aldundiari dagokio bidaiarien garraio publiko erregularreko zerbitzuak sortzea, bateratzea, zabaltzea, areagotzea eta kentzea, zerbitzu horien ibilbidea ibilbidearen zatirik handien Arabako Lurralde Historikotik igarotzen bada eta zati bat Euskal Autonomia Erkidegotik gorakoa bada, eta honako baldintza hauek guztiak betetzen badira:

a) Linearen trafiko ia guztia Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean gertatzea edo aurreikusitakoa, eta lurralde horretatik kanpo gertatzen edo aurreikusitakoa dena hondar-izaera hutsa izatea.

b) Kanpoko zatian dagoen edo aurreikusitakoa den trafikoak ez ekartzea interes garrantzitsurik tarteko hori dagoen ondoko Autonomia-Erkidegoko trafikoak behar bezala antolatzeko.

Kasu horietan, Arabako Foru Aldundiak, alde aurretik, eragindako Autonomia-Erkidegoen entzunaldia izango du.

3. Gehienbat Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo doazen zerbitzuak.

Arabako Foru Aldundiaren eskumena da gehienbat Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo doazen zerbitzuetan esku hartzea.

Eskumen hori baliatuz, administrazio titularrak nahitaezko txostena eskatu beharko dio Arabako Foru Aldundiari, bere lurraldearen barruan trafikoak ezartzeari edo ez ezartzeari buruz, eta hilabeteko epean eman beharko du. Txostena epe horretan ematen ez bada, aldekoa dela ulertuko da.

Era berean, eta Arabako Foru Aldundiak eskatuta, administrazio titularrak trafiko horiek sortu, aldatu edo kendu ahal izango ditu, hargatik eragotzi gabe foru-administrazioak linearen administrazio titularrari konpentsazioa emateko duen betebeharra, Arabako Lurralde Historikoan trafikoak sortu, aldatu edo kentzeak eragindako kalteengatik.

4. Erabilera bereziko zerbitzuak.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoetako foru-organoen eskumena izango da Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera-zentroetan erabilera bereziko bidaiarien garraio erregularreko zerbitzuak kontrolatzea.

2. Ahalmen hori baliatuz, Arabako Foru Aldundiari dagokio dagozkion baimenak ematea eta zerbitzuak emateari buruzko administrazio-kudeaketako eginkizun orokorrak betetzea.

Hirugarrena. Eskatu ahalako garraio publikoa

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoetako foru-organoen eskumena da errepideko bidaiarien eta salgaien eskatu ahalako garraio publikoko zerbitzuak antolatzea, baldin eta ibilgailuaren bizilekua edo enpresaren egoitza nagusiaren edo baimenaren xede izango den sukurtsalen baten helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan finkatuta badaude, ibilgailu jakin batzuei dagozkien baimenak edo enpresa-baimenak diren kontuan hartuta.

2. Ahalmen hori baliatzean, Arabako Foru Aldundiari dagokio jarduerak dituen baimenak ematea edo ukatzea, baimenak transmititzea, ikus-onestea, baja ematea eta birgaitzea, baita garraioa behar bezala antolatzeko ezartzen diren jarduera guztiak ere.

3. Jardueran aritzeko baimen berriak emateko, Estatuko eta Europar Batasuneko arauak oro har ezartzen dituzten baldintzak bete beharko ditu Arabako Foru Aldundiak.

Laugarrena. Garraio pribatu osagarria

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoetako foru-organoei esleitzen zaie egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresek egiten duten errepideko pertsonen eta salgaien garraio pribatuaren antolamendua.

2. Ahalmen horren barruan sartzen dira baimenak ematea edo ukatzea, baimenak eskualdatzea, ikus-onestea, baja ematea eta birgaitzea, eta garraioa behar bezala antolatzeko ezartzen diren jarduera guztiak.

Bosgarrena. Jarduera lagungarriak eta osagarriak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoetako foru-organoen eskumena da egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten edo bertan bizi diren garraioaren jarduera lagungarri eta osagarriak antolatzea.

2. Eskumen hori baliatuz, Arabako Foru Aldundiari dagokio, besteak beste, baimenak ematea edo ukatzea, baimenak eskualdatzea, ikus-onestea, baja ematea eta jarduera horiek behar bezala antolatzeko ezartzen diren jarduera guztiak egitea.

Seigarrena. Errepideko garraio-jardueran eta jarduera lagungarri eta osagarrietan aritzeko lanbide-gaitasuna

Arabako Foru Aldundiak bere gain hartzen du garraioaren lanbide-jardunerako eskatzen den lanbide-gaitasuna eskuratu, egiaztatu eta kontrolatzeko eskumena, eta horren barruan sartzen da errepideko garraio-jardueran aritzeko lanbide-gaitasunaren administrazio-titulua egiaztatzeke eta emateko probak deitu eta egitea.

Zazpigarrena. Ikuskapena eta zehapena

1. Arabako Foru Aldundiak errepideko garraioko zerbitzu eta jarduera guztiak ikuskatuko ditu enpresek beren lurraldean dituzten lantokietan eta bertatik zirkulatzen duten ibilgailuetan, bi kasuetan ikuskatu beharreko zerbitzuak eta jarduerak zein lurralde-eremutan egin diren kontuan hartu gabe.

2. Era berean, foru-organoen eskumena da aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera egiten diren ikuskapen-jarduketetan antzematen diren arau-hausteak zehatzeko ahala.

Zehatzeko ahalak dagozkion prozedurak eta errekurtsioak hasteko, bideratzeko eta ebazteko ahalmena dakar, eta indarrean dagoen legerian aurreikusitako behin-behineko kautela-neurriak hartzea ere badakar.

Hala ere, eta, hala badagokio, egoki lekietan beste edozein zehapen alde batera utzi gabe, foru-organoei Estatuaren eskumeneko erabilera orokorreko bidaiarien garraio erregularreko zerbitzu publiko baten emakida-kontratua suntsiaraztea proposatzeko ahalmena baino ez dute, eta Estatuko Administrazio Orokorreko organo eskudunari dagokio horri buruz dagokiona erabakitzea eta, hala badagokio, dagokion suntsiarazpen-prozedura hastea, izapidetzea eta ebaztea.

3. Euskal Autonomia Erkidegoan garraioaren arloko eskumena duen sailak, foru-aldundiekin batera, garraioa ikuskatzeko urteko plana onartuko du. Urteko ikuskapen planak errepideko garraioaren ikuskapen-funtzioei aplikatu beharreko jarraibide orokorrak ezarriko ditu, irizpideak bateratzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan ikuskapen-jarduera homogeneizatu eta objektibatzeko helburuarekin. Plan horrek garraio mota jakin bati buruzko ikuskapen-kanpaina espezifikoak egitea aurreikusi ahal izango du.

Zortzigarrena. Arbitraje Batzordeak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoetako foru-organoei garraioaren arloan sortzen diren merkataritza-arloko eztabaidak ebazteko arbitraje-sistemak antolatuko dituzte.

2. Ahalmen hori baliatuz, foru-aldundiei dagokie Garraioko Arbitraje Batzordeak ezartzea.

Bederatzigarrena. Eskumenen banaketa

1. Hitzarmen honetan Lurralde Historikoei eta foru-aldundiei aitortzen zaizkien ahalmenak honela erabiliko dira:

a) Erabilera orokorreko zerbitzu erregularren ondorioz, ibilbide luzeena duten Lurralde Historikoko foru-organoei esleitutako ahalmenak direnean.

b) Enpresaren edo ibilgailuaren jarduera-zentroaren edo helbidearen arabera, kokatuta dauden edo ezartzen diren Lurralde Historikoko foru-organoei esleitutako ahalmenak direnean.

2. Hitzarmen honek Lurralde Historikoei aitortzen dizkien ahalmenak legeria aplikagarriaren, goi-ikuskaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen koordinazio-irizpideen arabera erabiliko dira.

Hamargarrena. Lankidetzeta eta kooperazioa

Arabako Foru Aldundiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Estatuko Administrazio Orokorrak elkarri emango dizkiote beren eskumenak hobeto baliatzeko beharrezkoak diren edo beharrezkotzat jotzen dituzten datu, aurrekari eta txosten guztiak.

Hamaikagarrena. Baliabideak eskualdatzea

Autonomia Erkidego Osorako Erakundeek eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeek Arto Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen Lehenengo Xedapen Iragankorreko 2. idatz-zatian aurreikusten diren Bitariko Batzordeak, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundi bakoitzaren artean, Hitzarmen hau sinatzean bilduko dira, dagozkien giza baliabideak eta baliabide materialak eskualdatzea adosteko, Hitzarmen honen arabera horiek beren gain hartutako ahalmenen arabera.

Hamabigarrena. Hitzarmenaren aldaketa

1. Hitzarmen hau aldatzeko, eguneratze eta parekatze hori egiteko erabilitako prozedura bera erabiliko da.

2. Errepideko garraioari buruzko araudian funtsezko erreformaren bat gertatzen bada eta aldaketa horrek hitzarmen honen edukiari eragiten badio, hitzarmena sinatu duten administrazioek eguneratu egingo dute, ados jarrita.

Hamahirugarrena. 1950eko martxoaren 9ko hitzarmenak eguneratzea

Hitzarmen hau indarrean sartzean, Arabako Foru Aldundiak eta orduko Herri Lan Ministerioak 1950eko martxoaren 9an sinatutako hitzarmenak eguneratutzat jotzen dira.

Hamalagarrena. Indarrean jartzea eta indarraldia

1. Hitzarmen hau alderdien adostasuna emanez burutuko da, eta formalizatzen denetik 10 egun balioduneko epean argitaratuko da Estatuko Aldizkari Ofizialean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta ALHAOn.

2. Hitzarmen honek indarraldi mugagabea izango du, hamabigarren klausulan ezarritako prozeduraren arabera aldatu arte.